

Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU-DEKRETUA, zeinaren bidez foru-dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onesten baitira 2023ko ekitaldian ikus-entzunezko proiektuak ekoizteko.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales destinadas a la producción de proyectos audiovisuales durante el ejercicio 2023.

Kultura sustatzea eta herritarren esku jartzea: horra administrazio publikoek ezinbestez hartu beharreko konpromiso bat. Eta, hura gauzatzeko, baliabide egokiak bideratu behar dira, eta, besteak beste, sustapen eta babes-neurriak hartu, kultur jardueraren garapena eta aurrerabidea bermatuko badira.

La promoción de la cultura y el acceso de la ciudadanía a la misma conlleva el compromiso ineludible de las administraciones públicas de establecer los instrumentos para que ello sea posible, lo cual debe materializarse, entre otras actuaciones, mediante medidas de fomento y protección que garanticen la existencia, desarrollo y progreso de la actividad cultural.

Horrela definitutako jardun-esparruan, eta kontuan harturik zer rol duten ikus-entzunezkoek zabalkunde eta sensibilizaziorako tresna gisa XXI. mendeko gizartean, Bizkaiko Foru Aldundiak, eman daitezkeen beste laguntza instituzional batzuen osagarri, Kultura gizarteratzen eta gure Lurraldean barneratzen laguntzeko urteroko dirulaguntza-lerro bat abian jarri gauzatu du sektore horri ematen dion

En un marco de actuación así definido y teniendo en cuenta el papel que en la sociedad del siglo XXI desempeña lo audiovisual como instrumento de divulgación y sensibilización social, la Diputación Foral de Bizkaia, como instrumento complementario de otras potenciales ayudas institucionales, ha concretado su apoyo a este sector a través de una línea subvencional de carácter anual que pretende





sostengua. Hartara, babesa eman dio Bizkaiko kulturaren balioak herritaren sektore handiagoetara hedatzen dituzten ikus-entzunezko proiektuen ekoizpenari, gure memoriarekin lotutako alderdiak eta sormen-adierazpen berriak ezagutzera emateko.

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio proposatutako xedapen orokorraren xede den gaiari buruzko eskumena, hala ematen baitu aditzera azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzkoak. Lege horren 7.a.13) artikuluan, zehazki, eskumen eskusiboa ematen zaie lurraldeoi, besteak beste, interesekoak diren bertako kultura-organismoak sortu eta mantentzeko arloan.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak, zeinak onesten baitu Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua, eskumen hau esleitzen dio sail horri: kulturari buruzko proiektuak sustatzea.

Dekretu hau hiru kapitulutan egituratu da. Lehenengo kapituluan hurrengo bi kapituluaren xedapen erkideak ezartzen dira, eta kapitulu horietan, hain zuzen ere, araudi honen hiru xedek zehazten dira:

Xedapen erkideak (I. kapitulua).

Dokumentaletarako dirulaguntzak (II. kapitulua).

Film labor eta luzeetarako dirulaguntzak (III. kapitulua).

Era berean, xedapen hau izapidetzean printzipio hauen arabera jarduten da: premia eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, azkartasuna eta efizientzia, bai eta erregulazio onaren printzipioei datxekzien kontuak ematea ere, eta hori guztia Bizkaiko Foru

contribuir a la socialización y penetración de la Cultura en nuestro Territorio, favoreciendo la producción de proyectos audiovisuales que difundan los valores de la cultura vizcaína en sectores más amplios de la población, tanto en aspectos vinculados con nuestra memoria como con las nuevas expresiones creativas.

La competencia sobre la materia objeto de la disposición de carácter general propuesta corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, que atribuye a estos últimos, en su artículo 7.a.13), competencia exclusiva entre otras, en materia de creación y mantenimiento de organismos culturales de interés del territorio histórico.

Por su parte, el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, atribuye a este Departamento la competencia para promover proyectos relativos a cultura.

Este decreto se ha estructurado en tres capítulos. En el primer capítulo se establecen las disposiciones comunes a los dos siguientes capítulos, en los que se delimitan cada uno de los tres objetos de esta normativa:

Disposiciones Comunes (Capítulo I).

Subvenciones a documentales (Capítulo II).

Subvenciones a cortometrajes y a largometrajes (Capítulo III).

Asimismo, en la tramitación de esta disposición se actúa de acuerdo con los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia, celeridad y eficiencia, así como el de rendición de cuentas inherentes a los principios de buena regulación y ello de acuerdo con lo establecido





Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

en artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones generales en la Diputación Foral de Bizkaia, y a lo establecido en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que aborda iguales principios con carácter general. Finalmente, se cumple con lo establecido en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Beste alde batetik, aurrerapen ekonomiko eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan eta eraginkortasunez lortzeko bidean aurrera egitea eta ondore horretarako urte asko daramatza arlo horretan lanean. Ildo horretatik, dekretu honek genero-ikuspegia txertatzen du, bai hura lantzean, bai aplikatzean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan adierazten den bezala. Era berean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Dekretu horren bidez, generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira.

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este decreto incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género.

87/2021 Foru Dekretuaren arabera, dekretu hau aurretiazko kontsulta publikoaren eta entzunaldi eta jendaurreko informazioaren izapideen pean jarri da.

De conformidad con el Decreto Foral 87/2021, este decreto ha sido sometido a los trámites de consulta pública previa y de audiencia e información pública.

Halaber, araudi hori egiteko, honako txosten hauek egin dira:

Igualmente, en la elaboración de esta normativa se han emitido los siguientes informes:

1. Genero-eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa.
2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txosten juridikoa.

1. Evaluación Preliminar del Impacto de Género.
2. Informe jurídico del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.





3. Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari buruzko txostena.

3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.

4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.

4. Informe de control económico.

5. Legezketasunari buruzko txostena.

5. Informe de legalidad.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, proposamenak aurkeztea Foru Aldundiari, honek onetsi ditzan haien sailaren berezko gaiei buruzko foru-dekretu proiektuak. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzak ematea arautuko duten oinarriak onesteko. Eta, azkenik, Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Gobernu Kontseiluari dagokiola haiek egintza bakarrean onestea.

El artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, señala que compete a los diputados forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su departamento; el artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de su concesión, y el artículo 41.1 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones, correspondiendo al Consejo de Gobierno su aprobación en un solo acto.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak eztabaidatu ondoren,

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia,

XEDATZEN DUT:

DISPONGO

Artikulu bakarra. *Foru Aldundiaren dirulaguntzen oinarriak eta deialdi publikoa onestea.*

Artículo único. *Aprobación de las bases y de la convocatoria pública de subvenciones forales.*

Onetsi egiten dira, 2023ko ekitaldian ikus-entzunezko proiektuen ekoizpena egiteko Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailak emango dituen dirulaguntza foralen oinarriak eta deialdia.

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales que se conceden por el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, destinadas a la producción de proyectos audiovisuales, durante el ejercicio 2023.





Azken xedapenak

Disposiciones finales

Azken xedapenetatik lehenengoa. *Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza.*

Disposición final primera. *Habilitación para el desarrollo reglamentario.*

Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, Foru Dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion diru-laguntzak ematea.

Se habilita a la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral. Esta habilitación incluye la concesión de las subvenciones pertinentes.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el "Boletín Oficial de Bizkaia".

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua / La Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte. LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA

Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA





IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUAK 2023KO EKITALDIAN EKOIZTEKO FORU-DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES FORALES DESTINADAS A LA PRODUCCIÓN DE PROYECTOS AUDIOVISUALES DURANTE EL EJERCICIO 2023.

I. KAPITULUA

CAPÍTULO I

Xedapen erkideak

Disposiciones comunes

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

Base 1. *Objeto de la subvención.*

1. Foru dekretu honen arabera diruz lagun daitezkeen jarduerak ikus-entzunezkoen honako proiektu modalitate hauek dira, baldin eta horien xedea jendaurrean erakustea bada:

1. La actividad subvencionable con arreglo al presente decreto foral es la producción de las siguientes modalidades de proyectos audiovisuales cuyo destino sea su exhibición abierta al público:

a) Dokumentalak: fikziokoak ez diren ikus-entzunezkoen proiektuak, iraupena gorabehera.

a) Documentales: proyecto audiovisual de no ficción, independientemente de su duración.

b) Film laburrak: fikzioko ikus-entzunezkoen proiektua, hirurogei minututik beherakoa.

b) Cortometrajes: proyecto audiovisual de ficción con una duración inferior a los sesenta minutos.

c) Film luzeak: fikzioko ikus-entzunezkoen proiektua, hirurogei minutukoa edo luzeagoa.

c) Largometrajes: proyecto audiovisual de ficción cuya duración sea sesenta minutos o superior.

Dirulaguntza eskaeraren xede diren proiektuak 2023 ekitaldian burutu behar dira. Ekoizpentzat joko da filmaketa nagusia hasten denetik ikus-entzunezkoen proiektuari dagokion master kopia egin arteko jardueren multzoa. Gainera, 2024ko abenduaren 15a baino lehen zabaldu beharko dira.

Los proyectos que motiven la solicitud de subvención deberán desarrollar su producción durante el ejercicio 2023. Se entiende como producción, el conjunto de actividades desde el inicio del rodaje principal hasta la realización de la copia máster del proyecto audiovisual. Asimismo, su difusión se deberá realizar antes del 15 de diciembre de 2024.

2. Foru-dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honako hauek:

2. Quedarán excluidos del ámbito de aplicación del presente decreto foral:

a) Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 24ko 98/2022 Foru Dekretuaren babesean (2022 ekitaldian ikus-entzunezkoen proiektuak ekoizteko Foru Aldundiko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen ditu) diruz lagundutako ikus-entzunezkoen proiektuak.

a) Aquellos proyectos audiovisuales subvencionados al amparo del Decreto Foral 98/2022, de 24 de agosto, de la Diputación Foral De Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales destinadas a la producción de proyectos audiovisuales durante el ejercicio 2022.

b) Hezkuntza-sistemako ikaskuntza-prozesuei

b) Los proyectos audiovisuales vinculados a procesos





lotutako ikus-entzunezko proiektuak.

c) Hizkuntzak ikasteko egiten diren ikus-entzunezko proiektuak.

d) Turismoa sustatzeko egiten diren ikus-entzunezko proiektuak.

e) Sexuarengatik diskriminazioa dakarten ikus-entzunezko proiektuak.

f) Abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 9.2 artikulua araberako X pelikula kalifikazioa jasotzen duten proiektuak.

3. Hurrengo ekoizpen-gastuak lagunduko dira diruz:

a) 2023 ekitaldian gauzaturiko ekoizpen-gastuak.

b) Erakunde eskatzailearen egitura kudeatzeko gastuak (langileak, lokalen mantentze-lanak, egitura funtzionalari eustea).

Kasu honetan, gastu horiek proiektuko gastu guztien % 10eko muga izango dute.

4. Betiere, diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat bakarrik onartuko dira transakzio ekonomiko bat eragin dutenak bakarrik; transakzio hori egiaztatuko da zelan eta dirulaguntza eskatu duen eskatzailearen izenean egindako fakturen bidez.

Honako hauek, berriz, ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) Zabalkunde-gastuak.

de aprendizaje en el sistema educativo.

c) Los proyectos audiovisuales dirigidos al aprendizaje de idiomas.

d) Los proyectos audiovisuales dirigidos a la promoción turística.

e) Los proyectos audiovisuales que discriminen por razón de sexo.

f) Aquellos proyectos que, de acuerdo con el artículo 9.2 de la Ley 55/2007, de 28 de diciembre, reciban la calificación de película X.

3. Serán objeto de subvención los siguientes conceptos:

a) Los gastos de producción realizados en el ejercicio 2023.

b) Los gastos de gestión de la estructura de la solicitante (personal, mantenimiento de los locales, mantenimiento de su estructura funcional).

En este caso, se computarán dichos gastos con un límite del 10 % del importe total de gastos del proyecto.

4. En todo caso, tendrán la consideración de gastos subvencionables los que respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios, y se realicen en el plazo establecido, sin que el coste de adquisición de los gastos subvencionables pueda ser en ningún caso superior al valor de mercado.

Solo se admitirán como tales aquellos que supongan una transacción económica constatada con facturas a nombre de la solicitante de la subvención.

No tendrán la consideración de gastos subvencionables:

a) Los gastos de difusión.





b) Dirulaguntzaren eskatzailea ez den beste erakunde batek zuzenean ordaindutako gastuak.

c) Gauzatan ordaindutako babesa.

d) Ekipo-ondasunak eskuratzea, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada foru-dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epea baino.

e) Banku-kontuetako interes zordunak.

f) Interesak, errekarquak eta administrazio-zehapenak eta zehapen penalak.

g) Prozedura judizialen gastuak.

h) BEZa, baldin eta berreskura edo konpentsa badaiteke. Kasu horretan, BEZik gabe agertu behar dute gastuen zenbatekoek, hala eskabidean agertzen den aurrekontuan, nola dirulaguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztuko den aurrekontu exekutatuan.

i) Oro har, maiatzaren 5/2005 Foru Arauaren 29. artikularekin bat etorrita, beren-beregi kanpo utzitakoak.

5. Foru-dekretu honen helburua eskatzaileen ekintzak lagundu eta osatzea da; horregatik ez dira inoiz finantzatzeko jardueren ondoriozko gastu guztiak.

2. oinarria. *Pertsona eta erakunde onuradunak.*

1. Foru dekretu honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira sozietate anonimoak, erantzukizun mugatuko sozietateak, sozietate kooperatiboak, sozietate zibilak eta interes ekonomikoko elkarteak, bai eta enpresa-jarduerak gauzatzen dituzten pertsona fisikoak ere, betiere maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko ustezkoren batean ez badaude eta eskaerak aurkeztean honako eskakizun hauek betetzen badituzte:

a) Egoitza soziala eta/edo fiskala Bizkaiko Lurralde

b) Los gastos abonados directamente por otra entidad que no sea la solicitante de la subvención.

c) El patrocinio en especie.

d) La adquisición de bienes de equipo cuya amortización exceda al periodo de ejecución de las actividades previstas en el presente decreto foral.

e) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

f) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

g) Gastos de procedimientos judiciales.

h) El IVA, cuando sea susceptible de recuperación o compensación. En este caso, tanto en el presupuesto que contiene la solicitud como en el presupuesto ejecutado que se aportará con la justificación de la subvención, deberán figurar los importes de gasto sin IVA.

i) En general, los que resultan expresamente excluidos conforme al artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

5. La finalidad del presente decreto foral será la de apoyar y completar la acción de las solicitantes, nunca la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de las actividades.

Base 2. *Personas y entidades beneficiarias.*

1. Podrán beneficiarse de las subvenciones reguladas en el presente decreto foral tanto las sociedades anónimas, sociedades de responsabilidad limitada, sociedades cooperativas, las sociedades civiles y las agrupaciones de interés económico, como las personas físicas que ejerzan actividades empresariales, que no estando incursas en las causas del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, reúnan los siguientes requisitos a fecha de presentación de la solicitud:

a) Tener el domicilio social y/o fiscal en el Territorio





Historikoan izatea.

b) Hala badagokio, xede soziala ikus-entzunezko ekoizpena izatea.

c) Alta emanda egotea EJZn, dagokion epigrafean: 1 961.1.

2. Foru-dekretu honen bidez araututako deialditik kanpo geratuko dira ondasun-erkidegoak eta Kode Zibilaren 1669. artikuluan aipatutako sozietate zibilak.

3. Era berean, honako pertsona edo erakunde hauek ezin izango dute diru-laguntzarik jaso:

a) Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik zehapen irmoa izan badute administrazio-bidean, edo lan-arloan edo zigor-arloan, zehapenak ezartzen duen aldian.

b) Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.

c) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak III. Tituluan edo Emakume eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ala Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak xedatutako eskakizunak betetzen ez dituztenak.

3. oinarria. *Aplikatu beharreko araudia.*

1. Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen

Histórico de Bizkaia.

b) En su caso, tener como objeto social la producción audiovisual.

c) Estar de alta en el correspondiente epígrafe del I.A.E.: 1 961.1.

2. Quedarán excluidas de la convocatoria regulada por el presente decreto foral las comunidades de bienes, y sociedades civiles referidas en el artículo 1669 del Código Civil.

3. Asimismo, no podrán concurrir ni resultar beneficiarias de subvención aquellas personas o entidades:

a) Que hayan sido sancionadas en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo, durante el período que establezca la correspondiente sanción.

b) Cuyos fines y objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.

c) Que incumplan las obligaciones establecidas en el Título III del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, o en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres o en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Base 3. *Normativa aplicable.*

1. Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente decreto foral serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el





Erregelamendua, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, 4/2010 Errege Dekretua, urtarilaren 8koa, Administrazio Elektronikoen esparruan Elkarrengarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena eta beste edozein xedapen arauemaile, berak duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

2. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroren edo gehiagoren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreraren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

4. oinarria. Arau-haustek eta zehapenak.

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. Tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. Titulua ere.

5. oinarria. Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua 2. eta 3. zenbakietan xedatutakoarekin bat, foru-dekretu honetan arautzen diren dirulaguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira:

<https://www.ebizkaia.eus/es/hasiera>

Pertsona edo erakunde eskatzaile bakoitzak modalitateko eskaera bakarra aurkeztu ahalko du

Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica, el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

2. La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, les será de aplicación a aquellas entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 % del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

Base 4. Infracciones y sanciones.

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo establecido en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el Título IV de su reglamento de desarrollo.

Base 5. Lugar y plazo de presentación de las solicitudes.

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.2 y 3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes de subvención deberán presentarse a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

<https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>

Cada persona o entidad solicitante solo podrá presentar una solicitud con un único proyecto por





proiektu bakarrarekin.

2. Eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6. oinarria. *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta betekizunak.*

1. Eskabideak aurkezteko, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bete eta aurkezteko dauden eredu ofizialak erabili behar dira:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

2. Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Estatutuak edo eratu izanaren egiaztagiriak; batean zein bestean erakundearen helbideak eta xede sozialak agertu behar dute, baldin eta erakunde horiek sortu berriak badira, azken hiru urteetan aldaketak izan badituzte, edo Kultur Ekintzako Zerbitzuan aurretik dirulaguntza-eskabiderik aurkeztu ez badute.

b) Zuzendaritzaren, gidoiaren eta ekoizpen betearazlearen zereginetan diharduten pertsonen curriculum vitae; gutxienez, esperientzia eta, bidezkoa bada, eskuratutako sariak azalduko dira, nazioko eta nazioarteko jaialdietan izandako partaidetzaz gain.

c) Proiektuaren azalpena, gutxienez honako alderdi hauek jasoko dituen:

1) Azalpen-memoria.

2) Ikus-entzunezkoaren proiektuko gidoia, sinopsia barne.

3) Ikus-entzunezko proiektuaren ekoizpen-plana, filmatzeko lekua eta egunak adierazita.

modalidad.

2. El plazo de presentación de solicitudes será de 15 días naturales contados a partir del día siguiente al de la publicación del presente decreto foral en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Base 6. *Documentación a acompañar a la solicitud y requisitos.*

1. Las solicitudes deberán, de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015, ajustarse a los modelos oficiales disponibles para su cumplimentación y presentación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

<https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>

2. Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

a) Estatutos o documentación acreditativa de su constitución, en la que figurará su domicilio y objeto social, en caso de entidades recién constituidas, que hayan sufrido modificaciones en los últimos tres años, o que no hayan presentado solicitud de subvención con anterioridad en el Servicio de Acción Cultural.

b) Curriculum vitae de las personas que realicen las funciones de dirección, guion y producción ejecutiva con indicación, al menos, de la experiencia y en su caso, los premios y galardones conseguidos y la participación en festivales nacionales e internacionales.

c) Descripción del proyecto que, al menos, incluya:

1.º Memoria explicativa.

2.º Guion del proyecto audiovisual, incluyendo sinopsis.

3.º Plan de producción del proyecto audiovisual con indicación del lugar y los días de rodaje.





4) Ikus-entzunezko proiektuaren fitxa tekniko eta artistikoa.

d) Legezko edo borondatezko ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko da.

3. Nolanahi ere, egoitzan eskuragarri dagoen ereduaren arabera, honako hau bete beharko da:

a) Proiektuaren gidoi-, zuzendaritza-, argazki-, ekoizpen- eta musika-jardueren arduradunen kopurua, sexuaren arabera bereizita.

b) 21.1f) y 22.1d) oinarrien arabera baloratzeko, aurkeztutako eskatzaileak eta/edo proiektuak profil publikoa duen Bizkaiko Kultura eta Sormen Ekosisteman.

c) Eskatzaileak aurreikusitako urteko guztizko diru-sarrerak, gardentasunaren arloan aplikatu beharreko araudia betez.

7. oinarria. Dokumentazio egiaztagarria.

Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek parte-hartzaileei buruz dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Datu horiek honako hauek dira:

a) Banku kontuaren titulartasun datuak.

Eskatzaileak uko egiten badio administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, kasu horietan bakarrik, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da.

4.º Ficha técnica y artística del proyecto audiovisual.

d) La representación, legal o voluntaria, deberá acreditarse por cualquier medio válido en derecho.

3. En cualquier caso, se deberá cumplimentar, según modelo disponible en sede, lo siguiente:

a) Número de personas responsables en las actividades de guion, dirección, fotografía, producción y música del proyecto disgregadas por sexo.

b) A efectos de su valoración conforme a las bases 21.1f) y 22.1d), si la solicitante y/o proyecto presentado dispone de un perfil público en el Ecosistema Cultural y Creativo de Bizkaia.

c) Los ingresos totales anuales previstos por la solicitante, en cumplimiento de la normativa aplicable en materia de transparencia.

Base 7. Documentación verificable.

El Servicio de Acción Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, a través del Nodo de interoperabilidad de Bizkaia, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos de las participantes necesarias para la tramitación administrativa del presente decreto que obren en poder de las Administraciones Públicas, salvo oposición expresa de las mismas en cuyo caso, además de indicar los motivos de su oposición, deberán aportarse los datos o documentos correspondientes.

Los referidos datos son:

a) Los datos de titularidad de la cuenta bancaria.

En caso de que la solicitante se oponga a que esta Administración compruebe dichos datos bancarios por sus propios medios, deberá aportarse ficha de domiciliación bancaria debidamente cumplimentada.





b) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman izanaren ziurtagiria, 2.1. c) oinarrian ezarri denarekin bat.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Kultur Ekintzaren Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu pertsonalak eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz.

8. oinarria. Eskabideak zuzentzea edo hobetzea.

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendu elektronikoa egingo zaio erakunde eskatzaileari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu dezan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Kultur Ekintzako Zerbitzuak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du, aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko.

9. oinarria. Dirulaguntzak emateko araubidea.

b) Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias.

c) Certificado de estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social.

d) Certificado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas, conforme a la base 2.1.c).

En todo caso, si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible, el Servicio de Acción Cultural podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

Cualquier acceso a los datos personales se realizará de conformidad con lo previsto al respecto en Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y su normativa de desarrollo, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Base 8. Subsanación o mejora de las solicitudes.

1. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral, se requerirá electrónicamente a la persona o entidad solicitante para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

2. En todo caso, el Servicio de Acción Cultural podrá solicitar cuanta información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas.

Base 9. Régimen de concesión.





Diru-laguntza horiek norgehiagoka sistemaren bidez emango dira, hau da, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da eta aurkeztutako eskabideak alderatuko ditu, 21. eta 22. oinarrietan ezarritako ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta, eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko. Foru diru-laguntzak puntuaziorik altuenak lortu dituztenei emateko proposamena aurkeztuko du, betiere aurrekontu-partidan ezarritako zenbatekoa muga izanik.

Ondorioz, aurrekontu-partida horren mugak eragozten badu 21. eta 22. oinarrietako 2. paragrafoan ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu duten eskabide guztiei foru-diru-laguntzak esleitzea, puntuazio handiena dutenei esleitzea proposatuko da, eskabide bakoitzaren lehentasun-hurrenkerari jarraituz, dagokion zenbatekoa agortu arte.

Era berean, zenbait eskabidek lehentasun-ordena bera badute puntuazio bera lortu dutelako, eta puntuazio handieneko eskabideei dagozkien diru-laguntzak esleitu ondoren, haietarako dagoen zenbatekoa ez bada iristen dagozkien diru-laguntzen guztizko zenbatekoari erantzuteko, hauei aplikatutako diru-laguntzaren ehunekoa murriztuko da, harik eta erabilgarri dagoen zenbatekoa agortu arte.

10. oinarria. *Epaimahai kalifikatzailea.*

1. Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da, eta epaimahaikideak Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez.

Epaimahai hori osatzen duten pertsonak behar besteko gaitasun teknikoa, administratiboa, funtzionala eta zuzendaritzakoa izango dute eskabideetan eskatzen diren betekizunak behar bezala baloratzeko eta deialdi honen xede diren

La concesión de las citadas subvenciones se realizará mediante el sistema de concurrencia competitiva, esto es, a través de la constitución de un tribunal calificador que procederá a la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas, atendiendo a los criterios de valoración fijados en las bases 21 y 22 de este decreto foral, proponiendo la adjudicación de las subvenciones forales a aquellas entidades que hayan obtenido mayor puntuación, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria.

En consecuencia, cuando el límite de la citada partida presupuestaria impida proponer la adjudicación de las subvenciones forales a la totalidad de las solicitudes que hayan obtenido la puntuación mínima establecida el apartado 2 de las bases 21 y 22, se propondrá su adjudicación a las de mayor puntuación, siguiendo el riguroso orden de prelación de cada solicitud, hasta agotar la cuantía correspondiente.

Asimismo, cuando varias solicitudes tengan el mismo orden de prelación por haber obtenido la misma puntuación y, una vez adjudicadas las subvenciones correspondientes a las solicitudes de mayor puntuación resulte que la cuantía disponible para ellas no alcance para atender el importe total de las subvenciones que les corresponden, se procederá a reducir el porcentaje de subvención aplicado a estas, hasta agotar la cuantía disponible.

Base 10. *Tribunal calificador.*

1. Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas, se constituirá un tribunal calificador cuyas personas integrantes serán designadas por la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte mediante orden foral.

Las personas integrantes del mismo contarán con la capacidad técnica, administrativa, funcional y directiva suficiente para la adecuada apreciación de los requisitos exigidos en las solicitudes y valoración de los proyectos objeto de la presente convocatoria.





proiektuak baloratzeko.

Halaber, izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.

2. Epaimahai kalifikatzaileak dirulaguntzak puntuaziorik handienak lortu dituztenei emateko proposamena aurkeztuko du, betiere aurrekontuko partidan ezarritako zenbatekoa muga izanik. Epaimahaiak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuari, hark behin betiko ebazpena eman dezan.

11. oinarria. Aholkularitza.

Euskara, Kultura eta Kirol Foru Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak behar den laguntza tekniko edo aholkularitza emango du foru-dekretu honekin lotutako edozein zalantza edo kontsultaren gainean. Horretarako, helbide hau dago erabilgarri webgunean:

<http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKulturEkintza>

12. oinarria. Ebazpena.

1. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa betez, ez da aurreikusten deialdi honetan interesdunei lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena emango zaienik, behin entzunaldiaren izapidea eskaini eta gero, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

2. Deialdia ebatzi aurretik, Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatuko du eskabideek egunean dauzkatela beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar izateagatik. Egiaztapen hori egin ondoren, ikusten bada eskatzailearen batek ez duela betetzen betebeharrak horietako edozein, errekerimendua egingo

Igualmente, se cumplirá lo establecido en el art. 44 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad entre Mujeres y Hombres.

2. El tribunal calificador, propondrá la adjudicación de las subvenciones forales a aquellas que hayan obtenido mayor puntuación, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria, y presentará la propuesta de resolución a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte, con el fin de que se dicte la resolución definitiva.

Base 11. Asesoramiento.

El Servicio de Acción Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria, ante cualquier duda o consulta referida al presente decreto foral. A estos efectos se encuentra disponible la siguiente dirección en la página web:

<http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKulturEkintza>

Base 12. Resolución.

1. No se prevé que en esta convocatoria se emita, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la resolución, en primer lugar, a través de una propuesta de resolución provisional tras la que se conceda trámite de audiencia a las interesadas, puesto que no figurarán en el procedimiento ni serán tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las interesadas.

2. Previo a la resolución de la convocatoria, el Servicio de Acción Cultural comprobará que las solicitantes se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social y que no sean deudoras por reintegro de subvención. Si como consecuencia de tal comprobación resultare que alguna solicitante





zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean bere eskabidean atzera egindakotzat joko dela, behin ebazpena emanda.

3. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hiru (3) hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuak emango du ebazpena, horretarako izendatutako epaimahaiaren proposamena kontuan hartuta.

Epe hori eskabideari buruzko ebazpen espresuki eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsitzat joko da; hala ere, geroago ebazpen espresua eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru-agindua deialdi publiko honetarako eskabidea aurkeztu duten interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa agertzeko sistemaren bidez ere helaraziko zaie foru-agindua interesdunei.

Jakinarazpenean beren-beregi jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta haren aurka errekurtso hauek aurkez ditzakeela behean interesdunak: aukerako berraztertze-errekurtsoa, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren aurrean hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi (2) hilabeteko epearen barruan; epeok jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen.

13. oinarria. *Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna*

1. Foru dekretu honetako dirulaguntzekin bateragarriak izango dira estatuko nahiz Europar Batasuneko zein nazioarteko erakundeetako edozein administrazioatik edo erakunde publiko edo

incumple cualquiera de tales obligaciones, será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con advertencia de que, en otro caso, su solicitud será dada por desistida, previa la correspondiente resolución.

3. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución de las solicitudes será de tres (3) meses, a contar desde la finalización del plazo de entrega de solicitudes.

La resolución será dictada por la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte a propuesta del tribunal designado al efecto.

Si transcurrido dicho plazo no mediara resolución expresa y notificación de la misma, se entenderá que ha sido desestimada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.

4. La orden foral por la que se resuelva la presente convocatoria será notificada a las personas y entidades interesadas que hayan presentado solicitud a los efectos de esta convocatoria pública mediante publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

También se comunicará a las interesadas mediante el sistema de comparecencia en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Contendrá expresa mención a que la misma agota la vía administrativa, y podrá ser recurrida por la interesada interponiendo contra ella, con carácter potestativo, recurso de reposición ante la Ilma. Sra. diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes a partir del día siguiente al de su notificación o recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses, contados de igual forma.

Base 13. *Compatibilidad con otras subvenciones.*

1. Las subvenciones del presente decreto foral serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o





pribatutatik datozen, eta helburu bera duten, dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak, salbu eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak berak emandakoak.

2. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetako bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, Estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo ente publiko batek emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru-dekretu honen bitartez araututako dirulaguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste dirulaguntza edo laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bat eginda, inola ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

3. Foru-dekretu honetan jasotako diru-laguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko dute. Erregelamendu hori 2013ko abenduaren 24ko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (352. zenbakian), eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da.

Ondorioz minimis laguntza, guztira, ez da berrehun mila (200.000,00) euro baino handiagoa izango hiru zerga-ekitalditan.

14. oinarria. *Diru-laguntza ordaintzea.*

1. Deialdi hau ebazten duen foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hamar egun baliodunera onuradunak ez badio berariaz eta idatziz emandako dirulaguntzari uko egiten, ulertuko da onuradunak onartu egin duela, eta Kultur Ekintzako Zerbitzuak diru-laguntzaren zenbatekoaren ordainketa izapidetzen hasiko da, Ogasun eta Finantzen Foru Sailean; horretarako, onuradunei ez zaie inolako bermerik eskatuko.

Hala ere, onuradunen batek edo batzuek emandako

entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, a excepción de las concedidas por el propio Departamento Foral de Euskara, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia.

